

2025MDIR0003

ESKORIATZAKO UDALAREN ETA BAILARA IDNUSTRAL NETWORK ELKARTEAREAREN ARTEKO HITZARMENA

Eskoriatzan, azken sinadura elektronikoaren datan.

BILDU DIRA

Alde batetik, **EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA** jauna (NAN: 16258137N), ESKORIATZAKO UDALeko (aurrerantzean, Udala) **ALKATE-UDALBURUA**.

Bestetik, **"BAILARA INDUSTRIAL NETWORK"** (aurrerantzean, BAILARA) elkarteko presidentea **DANIEL MIGUELEZ** jauna (IFK: G44772226).

ADIERAZTEN DUTE

Toki Arabidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 17.1.34 artikulua araberan, Udalaren helburuetako bat udalerraren garapen ekonomiko eta soziala da.

BAILARA irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta Debagoiena eskualdearen garapen sozial eta ekonomikoan laguntzea da fundazioaren helburuetako bat.


BAILARAK lankidetzan jardun nahi du Udalarekin, honetarako:

- Udalerraren garapen ekonomiko eta sozialerako lankidetzak-estrategia publiko-pribatuak definitzeko eta aplikatzeko.
- Udalerraren etorkizuneko erronkei elkarrekin aurre egiteko.
- Udalerriko enpresen lehiakortasuna sustatuko duten politika publikoak egiten laguntzeko, horretarako bere esperientzia eta ezagutza eskainiz.
- Udalerriko enpresa berriak erakartzeko ekintzak sustatzeko eta egiteko, udalerriko enpresa gehiago egon daitezten elkartean.

BAILARAK 2025ko ekitaldirako Lan Plan bat egin du. Plan horretan, Debagoienaren eta bertako enpresen lehiakortasuna sustatzera bideratutako jarduera-multzo bat jasotzen da.

Ondorioz, helburu eta interes komunen artean dagoen konbergentzia kontuan hartuta, bi erakundeek komenigarritzat jotzen dute lankidetzak-loturak ezartzea lankidetzak-hitzarmen hau sinatuz.

| | | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------|------------|
| Kodea/Código | W25/0055 | Udala/Ayto. | Eskoriatza |
| CUDO | 000.0034.AAAAAY5E.B.EAot | | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/34/AAAAY5EB.EAot | | |
| Dokumentu honen balioa egiaztatzeko goiko Webgunean sar zaitez edo QR irudia irakurri ezazu/Para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR | | | |





Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

2023ko abenduaren 21ean, ESKORIATZAKO UDALaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen; eta 2025eko urtarrilaren 30eko Udalbatzarrak egindako osoko bilkuran, Plan horretan jasotzen den zortzigarren ildo estrategikoan, "Sustapen Ekonomikoa eta Soziala" izenekoa, "BAILARA Industrial Networkentzat" dirulaguntza programa aurreikusten jarraitzea erabaki zuen, eskualdearen garapen soziala eta ekonomikoa bultzatzeko helburuarekin.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. Artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute.

BALDINTZAK

Lehena: Hitzarmenaren helburuak

Hitzarmen honen xedea da 2025eko ekitaldiko aurrekontuan BAILARAREN izenean dagoen dirulaguntza nominatiboa antolatzeke ohiko funtzionamenduak zein BAILARAK 2025. urtean Lan Planean jasotako ekintzak gauzatzeko.

2025eko ekitaldirako lan-plan hori hitzarmen honen eranskin gisa erantsi da.

Bigarrena: Araudi aplikagarria

Hitzarmen hau ondorengo arauak arautzen dute:

- ESKORIATZAKO UDALak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorrak.
- 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren (Estatuko Boletin Ofiziala: 2003-11-18)
- Azken hori garatzeko erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak.

Hirugarrena: Beste laguntza edo dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Dirulaguntza hau jasotzea bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek (foru, autonomia, estatu edo Europar Batasunekoak) emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Inola ere ezingo da finantzaketa bikoitzik eman, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Laugarrena: ESKORIATZAKO UDALak hartzen duen konpromisoa

ESKORIATZAKO UDALak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2.c artikulua arabera, konpromisoa hartzen du BAILARARI 3.000 euroko (3.000 €) dirulaguntza emateko, 1 0100.481.422.00.01 2025eko aurrekontu aplikazioaren kargura ekitaldirako Lan Planean jasotako jarduerak garatzeko.

Bosgarrena: Laguntzaren erabilera



Emandako dirulaguntza, Eskoriatzako enpresa sarea mantentzeko, indarberritzeko eta sustatzeko Lan Plana egiteko erabiliko da, *“BAILARA Enpresa Elkartearen Urteko Lan Plana” eranskinean zehazten da.*

Seigarrena: Hizkuntza betebeharrak

Euskararen erabilera: Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren arabera, diruz lagundutako jarduerak herritar-multzo zehaztugabe batekin zuzeneko harremana edukitzea berekin dakarrenean, euskararen erabilera normala bermatu beharko da.

Hori aintzat hartuz, BAILARAK proiektua aurrera eramateko eta Lan Plana gauzatzeko:

- Udalarekiko eta proiektuaren hartzailleekiko zein eragileekiko harreman orotan euskararen erabilera bermatuko da, bai ahoz bai idatziz, eta horretarako, euskara zuzen eta egokian jarduteko behar besteko hizkuntza gaitasuna duten langileak jarriko dira.
- Jarraipen Batzorderako izendatuko den ordezkariak ere behar besteko gaitasuna izango du bere egitekoak euskaraz gauzatu ahal izateko.
- Halaber, euskara hutsean aurkeztuko da diruz lagundutako jarduerari buruzko txostena (memoria teknikoa eta ekonomikoa batzen dituena).

Zazpigarrena: Ordaintzeko modua eta epeak

Dirulaguntzaren %60a lankidetzaren hitzarmen hau sinatzean ordainduko da, Gainerako %40a justifikazioa egin ondoren.

Diru laguntza modu honetara ordainduko da:

% 60a ondorengo dokumentazioa digitalki aurkeztutakoan eta hitzarmen hau sinatu ondoren:

- 2025erako jarduera programa.
- Diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Helburu bererako eskatutako edota jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitortpena.
- Diru laguntza ordaindu beharreko banku-kontuaren gaineko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko, Eskoriatzako Udalarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.

Gainerako % 40a, organo eskudunak diru laguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

Zortzigarrena: Bailararen betebeharrak

Hitzarmen hau sinatzeagatik, BAILARAK honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

1. Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.
2. Hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzea.
3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako egoeraren baten pean ez erortzea.
4. Finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduketak onartzea eta Legearen arabera eskatzen diren datuak ematea.



5. Kontabilitate-liburuak, erregistro bereziak eta gainerako dokumentuak izatea, onuradunari aplikatu beharreko merkataritza- eta sektore-legeriak eskatutako baldintzetan.
6. Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke.
7. Jasotako funtsak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kasuetan.
8. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan zehaztutako gainerako betebeharrak betetzea.
9. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzaldiko Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duten erakundeek hizkera ez-sexista erabili beharko dute aurkezten dituzten memoria, proiektu eta gainerako testuetan. Era berean, genero-estereotipoak errepikatzea saihestu beharko da, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna aktiboki sustatu, egiten diren irudi, komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan.

Horrez gain, BAILARAK konpromiso eta betebeharrak hartzen ditu:

10. Udalak eskatzen dizkion bilera eta jarduera guztietan agertzea, eta eskatzen zaion informazioa ematea.
11. Diruz lagundutako jarduerak sortzen dituen esku-hartze publikoetan, argitalpenetan, liburuxketan edo publizitatean euskara erabiltzea.
12. Diruz lagundutako jarduerak sortzen dituen esku-hartze publikoetan, argitalpenetan, liburuxketan edo, oro har, publizitatean hizkera ez-sexista erabiltzen dela bermatzea.

Bederatzigarrena: Hitzarmenaren zabalkundea

BAILARAK bere gain hartzen du Udalak BAILARAREN jarduerak finantzatzen lagundu duela aipatzeko erantzukizuna, egin ditzakeen ekitaldi, agerraldi eta adierazpen publikoetan, bai eta diruz lagundutako jarduerak sortzen dituen argitalpen, liburuxka edo publizitate orokorretan ere.

Hamargarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa

BAILARAK 2025eko ekitaldian egindako jardueren justifikazio-memoria aurkezteko konpromisoa hartzen du. Gastuaren %100 justifikatu ezean, BAILARAK zati proportzionala itzultzeko konpromisoa hartzen du.

2025eko abenduaren 31rako, eta justifikazio ondorioetarako, BAILARAK ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du Udaleko Erregistro Orokorrean:

1. Eskaera telematikoa.
2. Elkartearen jarduera osoaren memoria.
3. Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, banatutako materiala, prentsa oharrak eta abar).
4. Diruz lagundutako jardueran izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko. Balantze hori organo eskudunak onartuta eta erakundeko idazkariak ziurtatuta egon beharko da. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu



beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.

5. Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.
6. Elkartearen gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna. LAGINKETA TEKNIKA. Gastu zerrendatik, udal kontuhartzailtzak eta arloko teknikariak elkarrekin aurrez aukeratuta, eta eska daitezkeen gutxienekoa izanik, aitortutako gastuen zenbateko osoaren % 20tik gorako gastu portzentajea egiaztatuko da (gutxienez, emandako dirulaguntzaren besteko kopurua izan beharko da). Gastuak justifikatzerakoan aitortutako gastu zerrendan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira dirulaguntza kitatzerakoan.

Gastu horiek honela justifikatuko dira:

Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta, edo horien fotokopia konpultsatuta. Fakturak udal erregistro orokorrean konpultsatuta ahal izango dira.

Fakturak, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.
- Elkarrekin ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.
- Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoaren izenean.

Fakturak edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Langileen gastuak justifikatzeko: Jarduerarekin lotutako langile guztien zerrenda, erakundeko ordezkariak ziurtatua; bertan adierazi beharko da bakoitzak egindako lan edo funtzioak, horretan emandako denbora eta kostea.

Kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren buletinak (*TC/1 eta TC/2 dokumentuak*) edo erregelamenduz horiek ordezkatzeko dituztenak eta PFEZ kontzeptuagatik egindako atxikipenak Ogasunean sartu izanaren dokumentuak.

Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa epe barruan ez aurkezteak kitatzeko gelditzen den dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du bestelako tramiterik egin beharrik gabe, eta baita ere, Udaleko dagokion unitate administratiboak ofizioz hastea ordaindutako diru laguntzen aurrerapena itzultzeko espedientea.

Era berean, aurkeztutako justifikazioari buruzko argibideak behar izanez gero edo dirulaguntza kudeatzen duen departamenduak egin beharreko txosten teknikoan gabeziak antzematen badira, eta gabezia horiek hasiera batean emandako dirulaguntzaren eta azken kitapena egiteko proposamenaren artean doitu beharra edo desbideraketa esanguratsua eragiten badute,



dagokion udal erabakia hartu baino lehen laguntza kudeatzen duen departamenduak 7 egun naturaleko epea emango du aipatutako gabeziak konpondu ahal izateko edo egoki iritzitako azalpenak emateko edo justifikazioak aurkezteko. Hori guztiori, azkenean har daitezkeen udal erabakien aurka bidezko diren errekurtsoak aurkeztearen kaltetan gabe.

Hamaikagarrena: Jarraipen batzordea

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta orokorrean etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Garapen Jasangarriko zinegotzia edo berak eskuordetutako pertsona.
- BAILARA NETWORK ELKARTETIK: Lehendakaria edo berak eskuordetutako pertsona bat.

Hamabigarrena: Aldeek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik eratorritako ondorioak

Hitzarmenaren sinatzaile batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena sinatu duten aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bere ez duen aldeari, epe jakin batean bere ez direla uste diren betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimendu horren berri emango zaio Jarraipen Batzorde Teknikoari.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren, salatu den ez-betetzeak jarraitzen badu, hura abiarazi zuen aldeak suntsiarazteko arrazoia dagoela jakinarazi beharko du, ete, horren ondoren, hitzarmena suntsitutzat joko da.

Hitzarmena ez betetzeagatik suntsiarazteak egiaztatuta geratzen diren kalteen kale ordaina ekarri ahal izango du.

Betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea ekimen honen sinatzailearen bat banantzearen ondorioz gertatzen bada, hark dagokion kalte ordaina hartu beharko du bere gain, betetzen ari den aldeari eta bertan jarraitzen duten hitzarmenaren gainerako sinatzaileei kaltegabatasuna bermatzeko eta nolana ere, eta adierazpen gisa eta ez mugatzaile gisa, zerbitzuaren xedean egon daitekeen murrizketagatik esleipendunari legozkiokeen kalte ordainak, baita gainerako partaideei gehiegizko karga ekonomikoak eragiteagatik eta abarregatik ere dagozkionak ere.

Betebeharrak ez betetzearen ondorioz hitzarmena suntsiarazteko arrazoia badago, hamaikagarren klausulan xedatutakoari jarraituko zaio.

Hamahirugarrena: Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen den egunetik 2025eko abenduaren 31ra arte, biak barne.

Hamalagarrena: Hitzarmena azkentzeko eta suntsiarazteko arrazoiak

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailean jakinarazi eta gero.

Hamabosgarrena: Datuen konfidentzialtasuna eta babesa



Udalak eta BAILAra konpromisoa hartzen dute beren jardueraren ondorioz eskura ditzaketen informazio eta datuen izaera konfidentziala errespetatzeko, eta lehen aipatutako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubideen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako manuak betetzeko beharra dute.

Hamaseigarrena: Hitzarmenaren izaera

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira eta Jarraipen Batzordeak konpondu ezin baditu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados gaudela erakusteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Daniel Miguélez
BAILARA elkarteko presidentea

Edorta Zubizarreta
Eskoriatzako alkatea


DANIEL MIGUELEZ MARTIN
06/06/2025 07:49:22


EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA
2025/06/06 12:58:12